

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

190/2019 Foru Agindua, ekainaren 26koa, zeinaren bidez baimentzen baita behin-behineko izendapena egitea Bastidako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hilabete baino gutxiagoko aldietan betetzeko 2019an, titularraren ezgaitasun edo absentsia kasuetan, oporrak, norberaren gauzak edo bestelako arrazoiengatik

Bastidako udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen baten beharra daukala, Koldobika Martínez de Zuazo Delgado udaleko idazkari-kontuhartzaile titularra hilabete baino gutxiagoko aldietan ordezkatzeko 2019an, titularraren ezgaitasun edo absentsia kasuetan, oporrak, norberaren gauzak edo bestelako arrazoiengatik.

Horregatik, proposatzen du behin-behinekoz izendatzea Raúl Gómez Iñigo funtzionarioa, Zuzenbideko lizentziaduna, A1 azpitaldekoa.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa –Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du 27/2013 Lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta–, non finkatzen baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin-behinekoz izendatzea Raúl Gómez Iñigo funtzionarioa, Zuzenbideko lizentziaduna, A1 azpitaldekoa, Bastidako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hilabete baino gutxiagoko aldietan betetzeko 2019an, titularraren ezgaitasun edo absentsia kasuetan, oporrak, norberaren gauzak edo bestelako arrazoiengatik.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Bastidako Udalarari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2019ko ekainaren 26a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ